

Reala ♦ De Pedrok ez zuen oso gustura bukatu atzo arratsaldeko entrenamendua

Lasai hartu nahi du

Baliteke beste astebete itxarotea lesioa ondo osatzeko

E. Esnaola / Donostia

REALEKO joko sortzailerik onena, Javier de Pedro, uste baino askoz lehenago ari zen osatzen zuntz haustura. Horrelako lesioekin normalean hiruzpalau aste behar izaten dira berriro jokatzen hasiteko, baina De Pedrok atzo goizean esan zuen nahikoa ongi zegoela, nahiz eta bi aste baino ez zeramatzan min hartuta. Dena den, arratsaldeko proba gainditu nahi zuen. Eta ez zuen oso ongi gainditu. «Oraindik motel nago», esan zuen Realeko jokalariek.

Hori dela eta, baliteke igandean Valladoliden jokatzen hasi beharrean, beste astebete hartzea, eta hilaren 21eko Real-Barcelona partidurako prest izatea. Berriro min hartzeko arriskua saihestu nahi du jokalariek, jokatze gogo handiz dagoen arren. «Azkeneko pare bat astean ez dut baloirik ukitu, eta inbidia pixka bat pasatu dut. Gogoz nago. Ona da hori».

Realak lehenbailehen behar du hura, taldea ez baita ari ongi jokatzen, nahiz eta azkeneko bederatzi puntuetatik zazpi irabazi dituen. Darko Kovacevic berak esan du haren falta nabaritzen duela partiduetan.



ARTXIBOKOA

Javier de Pedro, Anoeta estadioko partidu baten.

«Eskertzen da golegile batek nitaz hori esatea».

Kovacevic, sukarrarekin

Darko Kovacevic bera ez zen atzo ez goizez ez arratsaldean entrenatu, sukarrarekin

zegoelako. Real gaur goizez ariko da, eta ikusi egin behar Kovacevic azaltzen den ala ez.

Igor Cvitanovic ere ez zen atzo Zubietan izan, atzo jokatu baitzuen bere selekzioarekin –Kroaziarekin– partidu bat.

Bi entrenamenduetan, bestela, ez zen gauza handirik ikusi. Bernd Krauss entrenatzaileak arratsaldeko saioan normalean partidu txiki bat antolatzen du, eta bertan igartzen da hamaikakoa, baina atzo ez zuen ohiko partidurik antolatu.

Baliteke Graciari ebakuntza egin behar izatea abduktoreetan

Xabier Gracia abduktoreetako arazoei dabil azken aldian, eta bai jokalariek berak bai Realeko medikuek aurki hartu beharko dute erabakiren bat lesioaren gainean. Litekeena da hurrengo astean ebakuntza gelatik pasatzea, Alemanian. Iaz Inigo Idiakezi eta Ricardo Sa Pintori ere abduktoreetako ebakuntza egin zieten Alemanian bertan.

Kuhbauer baikor dago bere geroari begira

Dietmar Kuhbauerrek atzo esan zuen ez dela Realetik joango arrakasta lortu gabe. Horretarako, baina, gehiagotan ez lesionatzea desio du. Orain halaxe dago: min hartuta.

Forentseak ezagutu egin du Zabaleta hiltzeko erabili zen labana

Aurrera jarraitzen du Aitor Zabaleta jarraitzaile txuri-urdinaren hilketaren ikerketak, eta atzo forentseak berriz ere ezagutu zuen hura hiltzeko erabili zuten labana. Labana Zabaletaren gorputzean sartu zenean bezala sartzeko, erasotzailea altueraz txikiagoa dela esan zuen atzo forentseak. Halaxe gertatzen da ustezko hiltzaileekin: Ricardo Guerrarekin.

kontu kontari

Arrangura • Kezkatuta daude Menotti eta Cruyff entrena-tzaileak. «Futbolarien %80k ez dakite futbolean jokatzen», esan du aurrenak. «Ez zait gustatzen gaur egungo futbola», bigarrenak. Arrazoi dute. Batik bat, bere inguruari esker da indartsua futbola, zelaian apenas jokatzen baita futbolean.

Kalea • Taktikak gaina hartu dio teknikari. Gehiegizko diziplinak protagonismoa hartu die arteari eta inspirazioari. Gaur egun hamalau urteko mutil kozkorrek bi euskarriekin-eta jokatzen dute; edo hiru zentral eta bi lateralekin. Ez dira erabat libre zelaian. Taktikagatik. Edo hobeto esanda, entrena-tzaile batzuegatik. «Kalitateaz hitz eginez, pentsatu

Cruyff eta Menottiren kezak

Enekoitz Esnaola

ume batek hiru entrenatzaile dituela bere ekipoan, eta beste ume batek kalean jokatzen duela. Zein da hobe?», galdetu berri diote Cruyffi, eta hark: «Oro har, kalean jokatzen duena da hobe. Kalean jokalariek ongi jokatzen dute, eta txarrak begira egoten dira. Kalean ezin zara erori, bestela min hartzen duzulako, eta horrela oreka lortzen da. Teknika ere prestatzen duzu, baloiak ez duelako espero duzun bezala egiten botea». Tamalez, gaur egun lehen baino ume gutxiagok jokatzen du kale-

an futbolean; akaso ez dute lako futbolarekiko pasio hori; akaso, lehen baino etxe, supermerkatu eta errepide gehiago daudelako hirian edo herrian, eta, beraz, toki gutxiago dutelako jokatzeke; edo, akaso, telebistaren aurrean denbora gehiago pasatzen dutelako; edo, akaso, hiru gauzengatik. Kontua da gaur egun gazteek entrenamenduetan baino ez dutela jokatzen futbolean –eta hor ere ia gehiagotan egiten dituzte ariketa fisikoak–, eta horrela ezin dela gauza handirik ikasi; adin horretan ka-

lea da entrenamendu tokirik egokiena. Jakina, gero, Menottik dioten bezala, «futbolean jokatzen ez dutenak iristen dira goi-mailara».

Burua erabili beharra • «Gertatzen da haiek [futbolean ez dakitenek] abildareekin eta abidurarekin konpon-tzen dituztela gauzak. Baina horrek ez du zerikusirik jokoarekin», dio berriz ere Menottik. «Futbola berez askoz gehiago dago lotuta artearekin, atletismoarekin baino», erantsi du hark. Antzeko iritzia dauka Cruyffek: «Joka-

lari bat motela bada, baina mutil argia bada, azkarra izan daiteke. Hemen buruak agintzen du. (...) Zeuk dominatzen baduzu baloia, jokoa ere dominatzen duzu. Pase-rik errazena da gauzarik zailena. Eta paseotan ez baduzu hutsik egiten, asko izango duzu irabazia». Hala, Menottiren ustez, «jokoa irakurtzen jakin behar da». Tamalez, ordea, jokoaren *anal-fabeto* asko dago. Koeman, Guardiola, Rijkaard edo Bakero bezalako gutxi dago. Laurak ere euren ekipoetako ardatzak ziren, eta horrelakoak falta dira batik bat. Edo Laudrup bezalakoak. Izan ere, horrelakoek –jokoa sortzen dutenak– egiten dute bere aldameneko jokalaria hobe. Eta, azken batean, futbola ere bai.